

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

“Zer eskatzen du herriak..?”

As-ka-tasuna!” erantzuten genuen oihu batean orain dela hogeita hamahiru bat urte, uda osoan, txaranga nahiz berbenetan, edozein herriko jaixetan. 33 urte: nik artean 13, gure irakurle asko, berriz, oraindik jaio gabe.

Geroztik gauzak asko aldatu direla, ez dut inor konbentzitu beharrik izango. Aurtan, Euskal Herrian barrena dexente ibili naiz udan zehar. 80ko kantek sendo diraute festetako errepertorioan, nahiz eta goiko leloa entzutea ez zaidan tokatu. Eta hala ere, horixe galdetzea bururatu zait: zer eskatzen du herriak?

Aspaldi galdu zen, inoiz izan baten, Herriaren ahotsa bat eta bakarra izatearen sentimendua, lilura, irudikeria. Baina, izatekotan, herri horri hitza eman eta haren nahia betearazteko borrokari lotu zitzaizkionek egin behar liokete kasu balizko edo egiazko herriaren ahotsari. Belarriak eta borondatea garbi izanez gero, aspaldian ez bezalako batasuna sumatuko lukete, ez beste ezertan, baina bai ideia sinple honetan: 50 urteko ekina aski eta sobera dela, eta ibilbide horri amaiera emateko garaia iritsi dela. Hobe seguru asko Lizarrako hartan izan balitz, edo



DANI BLANCO

Loiolan, baina besterik ezean hobe gaur bihar baino.

Badira eskari hori betidanik egin dutenak, baina ez zegoen zertan jaramonik egin, hain zuzen, herri horretan sinesten ez zutelako, bertakoen ia-ia erdia izan arren. Batzuk kolonoak eta besteak kolonizatuak, esan genezakeen, onenean etxekotu beharreko alienatuak eta txarrean uxatu beharreko etsaiak.

Etxeko askok eman zioten bizkarra gero. Gero eta gehiagok. Baina horientzat ere pronto zegoen epaia: traidoreak ziren batzuk, dilista plateraren truke Ama Aberria saltzeko prest daudenak; koldarrak eta epelak bestetzuk, Estatuaren gezurrak sinetsi edo haren presioari amore eman diotenak.

Orain, berriz, betiko lagunek, urte luzeotan esperantza eta zigorrak partekatu dituztenek eskatu diote: nahikoa da, bide horrek ez garamatza inora, kito. Eta puntu honetan batasuna aho batezkoa izan arren, pertsona gutxi batzuek erabaki behar dute, nonbait, beren erakundearen etorkizuna ez ezik, baita gu guztiona ere, bere gainean hartu duten sakrifizio pertsonalak eman uste dien zilegitasun badaezpadako batekin.

Gaitz erdi, erabaki egokia balitz. ■

50 urteko ekinaren amaiera

emateko garaia iritsi da.

Hobe seguru asko Lizarrako hartan izan balitz, edo Loiolan,

baina besterik ezean

hobe gaur bihar baino

TXANDAN

Joseba Barandiaran



Gutxitan gertatuko zitzaizuen bost funtzionarioekin hitz egin eta, bostok, solistez osatutako korua bailiran, arrazoi duzula esatea. Hiru ez, bost tenore, horratx. Baina arrazoiaren prozedura ez, prozeduraren arrazoa da gure sektore publikoa gidatzen duena eta, ondorioz, “arrazoi duzu bai, ulertzen dut bai, baina... prozedurak hauxe agintzen du” entzunda amaitzen dira norberaren poxak eta hasten amorrazioak, haserretxoak eta bestelako malaostiak, fotokopiak eta errekurtsioak.

Koru Aldundia

Egiari zor, Bizkaiko Koru, barka, Foru Aldundia ez da besteak baino okerragoa izango.

Baina zinez zer hobetua itzela topatu dut, uda honetan, Ogasunarekin izandako lore jokotan. Kartak markatuta dituela berarekin jokatzer behartua sentitu naiz eta, jakina, jokoa ez da errenta pertsona fisikoontzat bederen.

Eskerrak Joseba Azkarraga Etxagibelen *Berandu baino leben. Erretratuak XXI. mendeari* saioa izan dudana bidaide. Iparra (eta beraz hegoa) ez galtzen laguntzen duen liburu horietako bat. ■